



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025ko irailaren 9a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Juliana Léveillé-Trudel

(Montreal, Kanada, 1985)

1985ean Montrealen jaioa, kultur ikasketak egin zituen Quebecoko Unibertsitatean, Montreal hirian, eta Quebec iparraldeko Nunavik eskualdean hezitzaile jardun du. Dramaturgia lanak egiten ditu eta Théâtre de Brousse izeneko sortu zuen. *Nirliit* bere lehen eleberria (2015), hainbat hizkuntzataraz itzuli izan da eta oihartzun handia lortu zuen.

Nirliit



Nirliit



Quebec hegoaldeko neska batek, antzaren gisan, iparraldeko Salluit herrixka inuitera bidaiatzen du urtero, beste zuri askok bezala uda sasoian lan egitera, eta han ikusi eta bizitakoak aipatzen dizkio Evari, desagertu berri den lagun inuitari. Narratzaileak nonahi sentitzen du Evaren espiritua, haren gorpua zilar koloreko fiordoaren hondotan egon arren, eta hari kontatzen dio zertan den hark utzitako lurraldea, zertan diren herrikideak, zertan hain ongi ezagutzen duen iparraldeko bizimodu latza: bortizkeria, asimilazio kulturala, mendekotasuna, arrazakeria, baina baita jendearen abegikortasuna, arbasoen kultura bizia eta natura salbaia ere. Nunavik, Quebecoko inuiten lurraldea, «sabelean emandako ukabilkada bat» bezain ederra da, eta halakoxeak dira tundra azkengabe horretan habia aurkitzen duten maitasun eta laguntasun istorio hunkigarriak ere.

Juliana Léveillé-Truden argitalpenak euskaraz

Nirliit (2015) **N LEV**

Kritikak esandakoak

“... Estilo zuzen eta gordina du Leveille-Trudelek, eleberria txirikordatzan duten istorioak bezain gardena. Batetik, narratiba lirikoa darabil, bereziki naturak latitude horretan hartzen duen indarra miresmenez deskribatzerakoan. Bestetik, ordea, narratzailearen lehen pertsona baliatuta, ahozkotik gertu geratzen den hizkera erabiltzen du kanadar zurien eta inuiten arteko botere-harremanak ahobizarrik gabe azaleratzeko. Behatzaile rola hartzen duen narratzailearen bidez, Salluiteko bizimoduaren collage moduko bat sortzen du, pertsonaia desberdinen gertaerak trebetasunez elkarlotuz. Interesgarria da nola ekartzen dituen argitara Quebecetik inuiten mundua deskubritzera, eta zenbaitetan salbatzera, dihoanaren aurreiritziak, epaiak eta kontraesanak. Izan ere, narratzailea bere posizio eta pribilegioez kontziente mintzo da, mendebaldeko bizimoduak inuitei eragin dizkien kalteak ezagutzen ditu, eta hegoaldeko gizonek neskak inuitak nahieran erabiltzea deitoratzen du, baina horrek ez du ekiditen gu/zuek binomioak eleberrian zehar hartzen duen pisua. Hala, narratzaileak bi errealtateen arteko gatazka eta botere-harremanak jartzen ditu agerian lehen ahots propiotik, nahita, testua onberatasunetik urrun kokatuz.”

Irati Majuelo / Berria, 2021-05-16

“... Ohiko eztabaida bat da bizi izan ez duzun zapalkuntza bati buruz idatzi dezakezun, pribilegio kokapen batean egonda. Gizonek emakumeen esperientziari buruz hitz egin dezakete? Heterosexualek lesbiana eta gayei buruz? Zuriak arrazializatuak buruz? Alde batetik diskriminazioa eta bazterketa jasandakoen ahotsari entzutea da aberasgarriena, baina beste alde batetik egin beharreko lana ere bada bakoitzak bere botere kokapenari kritikoki begiratzea. Horretan dihardu idazleak.

...

Azalean Nirliit izenburua topa dezakegu: “antzara” inuktitut hizkuntzan, eta protagonistaren metafora, udan iparraldera doalako eta neguan hegoaldera. Azaleko irudiari dagokionez, “bisutsa” dugu, haizeak barreiatzen duen elur txiki sarria, izan ere, oso eremu hotz eta gogorra da klimatikoki, baso-mugaren iparraldean bizi dira, tundran, argitasun itsugarria eta iluntasun hitsa txandakatzen diren lurraldean...”

Amaia Alvarez Uria / Argia, 2021-09-05

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Juliana_L%C3%A9veill%C3%A9-Trudel

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8406>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8360>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8352>